

ERABAKIA / RESOLUCIÓN

UNIKOAK MUSIKA LEHIAKETA - Unibertsitate arteko musika jaialdirako UPV/EHUren ordezkaria hautatzeko maketa lehiaketa 2024

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) VIII. G9 Musika Lehiaketan (www.uni-g9.net) ordezkatzeko duen pertsona edo taldea aukeratzeko deialdia argitaratu zen 2024ko abenduaren 11ko datarekin.

Deialdiko irabazleak erabakitzeko epaimahaia osatu dute honako kide hauek:

UPV/EHUko kultura zuzendaritzaren izenean:

- Olatz Ocerin (Gipuzkoako Campuseko Euskararen eta Kulturaren arloko zuzendaria)

3 campusetako kultura-zerbitzuek izendatuta:

- Txusma Santaolalla. Arabako IKT-ko Ikusentzunezkoen Teknikaria.
- Cristina Arriaga. Bizkaiko Campuseko Hezkuntzarako Laguntzaren arloko koordinatzailea
- Roger Mas. Musikeneko irakaslea, eta Musikeneko Jazz saileko zuzendaria.

UNIKOAK MAKETA LEHIAKETA 2024 sariketako epaimahaiak oinarrien arabera hartutako erabakia kontuan izanda

EBAZTEN DUT

sari hauek banatzea:

1. saria: Jon Sortelle Iratzagorria

- 300 euroko saria dirutan.
- EHUdendarako bonoa.
- UPV/EHUren ordezkari gisa parte hartzea UPV/EHUk 2025eko ekainaren 6an Oviedoko unibertsitateak antolatuko duen VIII. G9 Musika Lehiaketan. Kasu horretan, G9 taldeak eta/edo UPV/EHUk bere gain hartuko dituzte kontzertura joateak eragindako garraio, ostatu eta mantenu-gastuak.
- Egiaztagiria.

2. saria: Alejandro Isidro

- 200 euroko saria dirutan.
- Egiaztagiria.

Euskarazko letrarik onena: Itxasargia

- 200 euroko saria dirutan.
- Egiaztagiria.

Lehiaketaren oinarrietan zehaztu bezala, G9ko Musika Jaialdian UPV/EHUren ordezkaria aldatu behar balitz, ordezeko beste talde bat hautatzeko balioko du puntuazio-zerrendak. Hala, honako ordena honetan deituko dira gainerakoak: Alejandro Isidro, Lax Lazaro.

Donostian, 2025eko martxoaren 11n,

Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako errektoreordea /
Vicerrectora de Relaciones Institucionales y Cultura
Izptua.: / Fdo.: Marian Iriarte Ormazabal